



**DONOSTIAKO UDALA**

Berdintasuna  
Donostia Gazteria

**ZABALDU BELDUR  
ZURE BARIK JARRERA!**

**BELDUR  
BARIK  
#JARRERA  
2022**



[www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)

**LEHIAKETAREN  
OINARRIAK  
BELDUR BARIK 2022**

ANTOLATZAILEA  
ORGANIZA



BULTZATZAILEAK  
IMPULSAN



# EDUKIA

<b>LEHIAKETAREN XEDEA</b>	3
<b>BELDUR BARIK JARRERAREN DEFINIZIOA</b>	3
<b>AURKEZTEN DIREN LANEN EUSKARRIA</b>	4
<b>NORTZUK ETA NOLA HARTU DEZAKETEN PARTE</b>	5
<b>GEHIENEZ AURKEZTU DAITEKEEN LAN KOPURUA</b>	5
<b>AURKEZTUTAKO LANEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK</b>	5
<b>LANEN BALORAZIOAN AINTZAT HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK</b>	7
<b>NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA</b>	7
<b>LANAK LEHIAKETARA AURKEZTEKO EPEAK</b>	8
<b>SARIAK</b>	8
<b>EPAIMAHAIA</b>	9
<b>EPAIMAHAIAREN EBAZPENA</b>	9
<b>LEGE-ALDERDIAK</b>	10
<b>ANTOLAKETA</b>	11
<b>ERANSKINAK</b>	12

## LEHIAKETAREN XEDEA

Beldur Barik programak **BELDUR BARIK JARRERA** ikus-entzunezko lehiaketaren **13. edizioa** antolatu du. Lehiaketaren xedea da emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen adierazpenak aintzat hartu, baloratu eta bultzatzea. Lehiaketara aurkezten dituzten ikus-entzunezko lanek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarreraren adierazgarri izan behar dute.

Proiektu parte-hartzaileek Beldur Barik Jarrera islatu behar dute, hau da, indarkeria matxistaren adierazpen mota guztiak gainditzeko eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, **mezuaren kalitatea baloratuko da**: nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka.

## ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?

1. Beldur Barik jarrerak “bere bikote edo bikote-ohiaren eskuz indarkeria fisikoa pairatzen duen emakume heldua” estereotipoa gainditzeko eta **neska gazteek euren bizitzen esparru guztietan sufritzen dituzten indarkeria sexista**<sup>1</sup>ren manifestazio anitzak ikusarazten ditu, hauek euren eguneroko testuinguru eta esparru guztietan agertzen den desorekaren ondorioak baitira.
2. Beldur Barik jarrera gazteek sufritzen duten **indarkeria matxistaren**<sup>2</sup> **beste manifestazio batzuk (LGTBIQ+fobia)**<sup>3</sup> ikustean ere badatza.
3. Honetarako, Beldur Barik Jarrera **irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da** eta indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste

<sup>1</sup> **Indarkeria sexista**: emakumeek emakumeak izateagatik edota emakume bezala identifikatuak izateagatik jasaten duten indarkeria matxista da.

<sup>2</sup> **Indarkeria matxista**: emakumeak eta kategoria normatiboekin identifikatzen ez direnak edo onartzen ez dituztenak jasaten duten indarkeria. LGTBIQ+fobia barne hartzen du.

<sup>3</sup> **LGTBIQ+fobia**: pertsona lesbianak, gaiak, transexualak, bisexualak, intersexualak, queer eta veste batzuk jasaten duten indarkeria eta diskriminazioa.

adierazpenak ematea ahalbidetzen duten **faktore estrukturalen** inguruan hausnarketa egiten du.

4. **Erreferente positiboak** erakustea du helburu:

- **Neskak:** indarkeria edo desoreka egoeren aurrean ahalduntze eta autodefentsa feminista jarrera.
- **Mutilak:** desoreken, kultura matxistaren eta indarkeria matxistaren aurrean jarrera autokritikoa, proaktiboa eta konprometitua, korporatibismo maskulinoarekin hautsiz.
- Gorputzen, **identitateen eta sexualitateen aniztasuna** ikusarazten du.

5. Indarkeria matxista sortzen duten faktoreak eta bere manifestazioak identifikatzeaz gain, kritikoa, urratzailea eta positiboa den jarrerarekin aurre egiten zaio. Planteatzen diren **irtenbideak indibidualak zein kolektiboak** izan daitezke.

## AURKEZTEN DIREN LANEN EUSKARRIA

Edozein adierazpen artistiko onartuko da, baldin eta **ikus-entzunezko euskarrian** aurkezten bada: flashmob, errezzitatutako poemak edota kameraren aurrean irakurritako hausnarketa- testuak, bideo klipak, argazkiak, fotomuntaketa, fotonobelak, lipdub, dantzak, film laburrak, animaziozko proiektuak, proiektuen edota artelanen aurkezpenak, performanceak, herritarren esku-hartzeak, etab.

**Ikus-entzunezkoak AZPITITULUAK eraman behar dituzte.**

Azpitituluen helburua **irisgarritasun unibertsala** bermatzea da, hau da, mundu guztiak ulertu ahal izatea bideoaren mezua, zatiren batean hitz egiten bada.

Azpitituluak ahalik eta irakurterrazenak izan daitezen, **fondo beltzaren gainean hitzak zuriak izatea gomendatzen da.**

## NORTZUEK ETA NOLA PARTE HARTU

- **ADI!** Aurten adin-tartean aldaketa bat egon da → parte hartu ahal dute Euskal Autonomi Erkidegoan bizi edo ikasten duten **12 eta 20 urte arteko neskak eta mutilak**.
- **ADI!** Aurten kategoriak aldatu dira. Hiru kategoria daude:
  - **1. kategoria:** 2010 eta 2008 urteen artean jaioak (12-14 urte)
  - **2. kategoria:** 2007 eta 2005 urteen artean jaioak (15-17 urte)
  - **3. kategoria:** 2004 eta 2002 urteen artean jaioak (18-20 urte)

Talde-lan batean, parte hartzen dutenen %40 gainerako %60 baino nagusiagoa izateagatik goiko kategoria batekoak direnean, lanak zuzenean hurrengo kategorian parte hartuko du.

**Garapen psiko-ebolutiboan eragina duen ezgaitasunen bat duten gazteen kasuan, malgutasuna egongo da lanak kategorietan sailkatzerako orduan.**

## GEHIENEZ AURKEZTU DAITEKEEN LAN KOPURUA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, **hiru proiektu** aurkez daitezke.

## AURKEZTUTAKO LANEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

- **Formatua:** Lan guztiak bideo formatuan aurkeztu beharko dira. Bideoa honako bi plataformaren batera igo beharko da: **YOUTUBE edo VIMEO (aukera publikoan)**.
- **Baldintza teknikoak:** Bideoek **gehienez 3 minutuko luzera** izango dute, kredituak barne (baldin badituzte).
- **Lanek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote:** indarkeria sexista eta matxista prebenitzea. **Aurkeztutako lanen edukiak helburuarekin zerikusirik ez badu, edota beraren aurkakoa edota kalterako izanez gero,**

**lehiaketaren antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete.** Ebazpena parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

- **Originaltasuna:** proposamenek originalak izan beharko dute; ezin dira izan plagiatu, usurpatu edota hirugarren pertsonen kopiatutakoak. Susmorik izanez gero, lanari dagozkion egiletza probak eskatuko dira.
- Lanak ezin izango dira Beldur Barik lehiaketara edo programarekin lotuta ez dauden beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak izan.
- **Hizkuntza irizpideak:** lanak euskaraz, gaztelaniaz, ele bietara zein bestelako hizkuntzaren batean aurkeztu ahal izango dira, baldin eta euskarazko edota gaztelaniazko azpigituluak badituzte. **Euskeraren erabilera aintzat hartuko da.**
- **Musika eta irudien erabilera:** egile-eskubiderik ez dutenak erabiltzea gomendatzen dugu (copyleft lizentziadunak edota norberak sortuak). Egile-eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte-hartzaileek beraien gain hartu beharko dituzte bideoa igotzen duten plataformek zein autoreek bideoaren aurka hartzen dituzten neurriak. Era berean, jabetza intelektualaren

eskubideren bat urratzen duela egiaztatzen bada, antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete.

### Bestelako baldintzak: **18 URTETIK BEHERAKO PARTE-HARTZAILEAK**

Parte hartzen duten 18 urtetik beherako gazteek **1. eranskina edo 2.**

**eranskina** aurkeztu beharko dute (eranskinetan) egoki beteta webguneko formularioan (eremu guztiak beteta eta sinatuta).

- 1. Eranskina. **Norbanakoen baimena:** ama/aitaren zein legezko tutoreen baimena adin txikikoen Beldur Barik programan parte har dezaten.
- 2. Eranskina. **Taldekako baimena:** **ikasgela edo heskuntza zentro** bezala aurkezten diren lanetarako. Eranskin hau betetzeko ardura zentroko zuzendaritzarena izango da, eta zentroa bera izango da banakako baimenak jasotzearen arduraduna.
- **Gaztelekuak eta elkarteak:** proiektuan parte hartzen duten parte hartzaile guztien banakako baimenak aurkeztu beharko dira, eta batera aurkeztu beharko dira.

Youtube edo Vimeora igotako bideoen deskribapenean, bideoaren izenburua erantsiko da, baita zein udalerritatik eta zein kategoriatik aurkezten den ere. **Ez dira parte-hartzaileen izen-abizenak edo datuak jarriko.**

**ADI!** Aurten, berrikuntza gisa, bideoa webgunera igotzerako orduan **PROZESU-FITXA** bete behar izango da. Ikus-entzunezko lana sortzeko prozesuari buruzko informazioa jasoko duen fitxa errez bat izango da.

## LANEN BALORAZIOAN AINTZAT HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK

- Beldur Barik Jarrera islatu.
- Originaltasuna mezuak adierazteko orduan.
- Gazteek beraien egunerokoan bizi dituzten indarkeriaren adierazpenen identifikazioa.
- Indarkeria edota diskriminazio egoeren aurre aurkeztutako erantzunen ikuspegiak eta tonuak *Beldur Barik Jarrera* izan behar dute: ahalduntzea, salaketa, umorea, erantzun positiboak...
- Euskeraren erabilera positiboki baloratuko da eta beste hizkuntzetan dauden lanetan euskarazko azpitutuluak gehitzea ere **(derrigorrezkoak diren azpitutuluez aparte: lana den hizkuntzan eta beti euskaraz edo gaztelaniaz).**

## NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA: PAUSUZ PAUSU

1. **Igo** ikus-entzunezko lana **Youtube edo Vimeora**. Plataforma hauek sortzen duten esteka da aurkeztu behar dena.
2. Programaren webgunean dagoen ([www.beldurbarik.eus/eu/](http://www.beldurbarik.eus/eu/)) **formularioa bete** eta plataformara igotzean sortutako esteka kopia.
3. **Prozesu-Fitxa bete**. Fitxa Beldur Barik-eko webgunean ([www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)) eta dokumentu honen eranskinetan aurkituko duzu (3. ERANSKINA). **Talde bat bazarete, gomendatzen dizuegu fitxa elkarrekin betetzea.**
4. Izen-ematea zuzen burutu dela **baieztatzeko mezua** agertuko da.
5. Lehiaketarako lana aurkeztu eta gero, programaren idazkaritza teknikoak oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuko du.
6. Egiaztatu eta gero, idazkaritza teknikoak **formularioan emandako emailera jakinarazpena bidaliko du**, lehiaketan onartu dela edo ez dela onartu jakinarazteko.
7. Onartutako lanak webgunean **publikatuko** dira.

# LANAK LEHIAKETARA AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko eta jasotzeko epea **2022ko irailaren 19an**

**irekiko da, goizeko 08:00etan, eta 2022ko azaroaren 11n itxiko**

**da, gaueko 23:59an.**

## SARIAK:

### Lehiaketa orokorra

- **1. kategoriako saria:** 400€
- **1. kategoriako aipamen berezia:** 200€
- **2. kategoriako saria:** 400€
- **2. kategoriako aipamen berezia:** 200€
- **3. kategoriako saria:** 400€
- **3. kategoriako aipamen berezia:** 200€
- **Ikus-entzunezko lan onenaren saria\*:** 300€
- **Parte-hartzearen saria\*\*:** 300€

## Donostiko sariak:

**1.- kategoria: Hirian ospatuko den kirol edo kultur ekitaldirako sarrerak**

**2.- kategoria: Hirian ospatuko den kirol edo kultur ekitaldirako sarrerak**

**3.- kategoria: 300,00 €**

Aurkeztutako lanek bai lehiaketa orokorrean bai Donostiako tokiko lehiaketan **parte-hartuko dute**. Kontuan izan herri guztiek ez dutela Beldur Barik tokiko lehiaketarik antolatzen.

Goian deskribatutako sariak ezarri dute dagokien zerga-atxikipena.

\* **Ikus-entzunezko lan onenaren saria** Beldur Barik Jarrera! adierazteko kalitatezko komunikazio artistikoko baliabideak edota kodeak erabili dituen hiru kategorietako edozein lani emango zaio.

\*\* **Parte-hartzearen saria** herri-bozketan boto gehien lortu dituen lanari emango zaio, baldin eta lan hori Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoan artean badago.

*Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik uzteko eskubidea dute.*

*Sarietako irabazleek beren lanaren eskubideak Emakunderi lagatzen dizkiote, gazteriarri zuzendutako kanpainetarako erabili ahal izateko, hala erabakiko balu.*



## EPAIMAHAIA

Antolatzaileek **epaimahaia** izendatuko dute eta honako hauek izango dira epaimahaia eratuko dutenak:

- proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak;
- aurreko edizioako irabazleak;
- eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren eremuetan eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministak.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hiru kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea. Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

### Donostiako lehiaketako epaimahaia:

1. Ikus-entzunezkoetan aditua
2. Gazteria teknikaria
3. Berdintasuneko teknikaria

Aurten, Donostiako lan sarituak **2022ko azaroaren 25ean** emango dira ezagutzera.

## HERRI BOZKA

Bozketa bidezko **parte-hartzearen saria** izendatzeko funtzionamendua honako hau izango da:

- Epaimahaiak alde aurretik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, Beldur Barik Jarreraren irizpideak modu egokian adierazten dituzten lanekin, hain zuzen ere, (oinarrietako lehen puntuan jasota datozenak). Horiek izango dira herri-bozketan parte hartu ahal izango duten lanak.
- Parte-hartzearen saria izendatzeko herri-bozketa sistema **azaroaren 17an aktibatuko da, goizeko 08:00etan.**
- **Azaroaren 20ko 23:59an** bozka gehien eskuratu dituen lanak irabaziko du parte-hartze saria. Izan ere, egun eta ordu horretan itxiko da bozketa prozesua.
- Bozketa Beldur Barik webgunetik jarraitu ahal izango da, eta sare sozialen bidez hedatuko da: Facebook, Twitter eta Instagram bidez.
- Prozesuan **irregulartasunak** agertzen badira (webgunea hackeatzea, e-mail masiboak ekoizteko sistemak erabiltzea, webgunearen administrazioaren nortasuna ordezte, etab.), parte-hartze saria hutsik gera liteke.

## LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketara aurkeztutako parte-hartzaileek Beldur Barik programari baimena ematen diote euren lana erabiltzeko, Beldur Barikeko ikus-entzunezko zein inprimatutako materialak sortzeko, sustatzeko eta hedatzeko. Parte-hartzaileek, gainera, **baimena ematen dute ekintza hauetarako:**

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzeko (sari-banaketan, programaren aurkezpen saioetan...).
- Lanak proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara egokitzeak.
- Laneko irudiak edo pasarteak programaren aurkezpen materialetan sartzeko (aurkezpen spot-a, pieza grafikoak, etab.).

Dena den, lanen bat **hezkuntza edo kultur helburuekin**

**erabiltzekotan**, Beldur Barik Programaren formularioan zehaztutako harremanetarako pertsonarekin harremanetan jarriko da alde zuzena.

**Norbait klausula honekin ados ez badago, antolatzaileei idatziz jakinaraziko da, epea amaitu baino lehen.**

Lehiaketako antolakuntzak ez du bere gain erantzukizunik hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; erreklamaziorik egonez gero, beraz, bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa. Era berean, parte- hartzaileek

beren egiletza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

**Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.**

### Datu pertsonalen babesa

Indarrean dauden Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europar Legebiltzarreko eta datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio libreak dagokionez, pertsona fisikoen babesari buruzko Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Arautegian ezarri dena betez, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak ohartarazten du

emandako datu pertsonalak Emakunde - **Emakumearen Euskal Erakundearen jabetzako fitxategi automatizatu batean gordeko direla, datuen tratamendua egiteko.** Datuak ez zaizkio hirugarren bati emango, tartean legezko obligaziorik ez bada behintzat, eta ez zaizkio hirugarren herrialderen bati jakinaraziko. **Datu hauen erabilera bakarra Emakunderen Beldur Barik programaren kudeaketara mugatzen da eta pertsonaren onespenean oinarritzen du bere tratamendua.**

Interesdunek legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubide ere. Datuen babesaren inguruko informazioa: [www.euskadi.eus/proteccion-datos](http://www.euskadi.eus/proteccion-datos).

# ANTOLAKETA

Lehiaketa Emakundek antolatzen du, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, Berdinsareak eta EUDELeK bultzatzen dute; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Gazteria Zuzendaritzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzarekin.

Informazio gehiago:

**[www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)**

Idazkaritza Teknikoarekin harremanetan jarri

(ERROTIK Kooperatiba Feminista):

**[info@beldurbarik.eus](mailto:info@beldurbarik.eus)**

**[komunikazioa@beldurbarik.eus](mailto:komunikazioa@beldurbarik.eus)**

**946 068 379**

**Donostiako informazioa :**

[www.donostia.eus/gazteria](http://www.donostia.eus/gazteria)

[www.donostia.eus/berdintasuna](http://www.donostia.eus/berdintasuna)

[berdintasuna@donostia.eus](mailto:berdintasuna@donostia.eus)

[gazteria@donostia.eus](mailto:gazteria@donostia.eus)

# 1. ERANSKINA

## AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN\* BAIMENA ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....  
 ..... andreak/jaunak, adinez  
 nagusi, ..... zenbakidun NAN duenak,  
 eta ..... jaunak/andreak, adinez  
 nagusi, ..... zenbakidun NAN  
 duena, helbidea n  
 dutenak, ( telefono  
 zenbakia), ..... adingabekoaren ..... urte dituen  
 eta e-maila duena) ama / aita (edo  
 tutore), eta beraz, legezko ordezkari, garen aldetik.

ADIERAZTEN DUGU ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIOGULA, gure ..... alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketa parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

BAIMENA EMATEN DUGU, BERARIAZ, askatasunez, espezifikoki, informatuta eta zalantzarik gabe Beldur Barik Lehiaketa parte hartzen duen gure alabari edo semeari eragiten dioten datu pertsonalen tratamenduarako.

Ados gaudela adierazteko, hori guztia sinatzen dugu

.....n, 2022ko .....aren (e)(a)n

*\* Gaztearen guraso-ahala duten pertsonen baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.*

*Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, bere 7. artikuluan xedatzen du pertsona adingabe baten datu pertsonalen tratamendua 14 urtetik gorakoa denean soilik oinarritu ahal izango dela bere baimenean. 14 urtetik beherako kasuan, guraso-agintearen edo tutoretzaren titularraren adostasuna baldin badago soilik izango da zilegia.*

## 2. ERANSKINA

### **IKASTETXEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO**

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....  
..... andreak / jaunak, adinez nagusi,....  
.....NAN zenbakiarekin,  
helbidea.....n, .....  
telefono-zenbakia eta .....  
..... e-maila dituenak, .....  
ikastetxearen edo elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien edota lege-  
ordezkarien baimena aurretik jasota: ADIERAZTEN DU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako  
Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa  
betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko,  
emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak onartzen  
ditugu.

Ados gaudela adierazteko, hori guztia sinatzen dugu

.....n, 2022ko .....aren .....(e)(a)n

## 3. ERANSKINA

### PROZESU-FITXA

<b>Lanaren izenburua:</b>
<b>Kategoria:</b>
<b>Udalerrria:</b>
<b>Lurralde Historikoa:</b>

(azpimarratu edo koloreztatu aukeratutako erantzuna)

#### 1. Aurkezpen modalitatea:

Banakakoa     Taldeka     OIkastetxea     O Gaztelekua     O Beste bat, zein?

#### 2. 2. Partaide kopurua: \_\_\_\_\_

Neska kop.: \_\_\_\_\_    Mutil kop.: \_\_\_\_\_    Beste identitateak kop.: \_\_\_\_\_    Zeintzuk? (aukera): \_\_\_\_\_

#### 3. Partaideen adinak:

#### 4. Norbaiten laguntza jaso duzue lana egiteko?

Bai     Nor/nortzuk? \_\_\_\_\_     O Ez

#### 5. Zertan lagundu dizue?

O Bideoaren grabaketa eta edizioa     O Ideiak eta edukia     O O Beste batzuk

#### 6. Noiz hasi zineten lana prestatzen?

O Iraila     O Urria     O Azaroa

#### 7. Beldur Barik buruzko formakuntzaren bat egin duzue?

O Bai     O Ez    Zein? Gaia, lekua, ordu kopurua...

---

**8. Beldur Barik-eko webgunera jo duzue informazioa edota ideien bila?**

Bai

Ez

---

**9. Beldur Barik-eko sare sozialetara jo duzue informazioa edota ideien bila?**

Instagram

Facebook

Tiktok

Spotify

Ez

---

**10. Nola baloratuko zenukete zuen esperientzia 1etaik 5era? (1 baxuena eta 5 altuena dela)**

0 1

0 2

0 3

0 4

0 5

---

**11. Zer ikasi duzue esperientzia honetaz?**